



## Joaquín Bayo Bartzelonako majistratu eta epaile dekanuari elkarrizketa

“Nire ustez, koofizial diren hizkuntzen arteko itzulpena edo interpretazioa ez dago indefentsioarekin lotuta, itzulpena profesionalek eginez gero”

**Joaquín Bayo Delgado** Bartzelonan jaio zen 1952an. Zuzenbideko, Filologia Klasikoko eta Grekoari buruzko ikasketak egin eta abokatu gisa hasi bazen ere, gerora epaile izan zen, eta gaur egun majistratu-epaile da Bartzelonan. Horrez gain, Aginte Judizialeko Kontseilu Orokorreko zenbait ikastaroetako zuzendari dugu, baita *Centre d'Estudis i Formació Especializada*-koa ere. Adierazi baita, *Themis i Demo-Droit* programetan Europako Kontseiluko aditu dela.

Abenduan Justizia Administrazioa euskalduntzeari buruz izandako jardunaldietan parte hartu zuen, eta bertara hurbildu ginen elkarrizketatzeko asmoz.

**1.**  
Nolako izan ohi da lanegun bat Bayo jaunarentzat? Zeintzuk dira Bartzelonako majistratu dekanoren baten eguneroko zereginak?

Bartzelonako majistratu-epaile dekanoren baten lanegunak, Dekanotzak ardura eskusiboa duen gainerako hirietan gertatzen den bezala, oso aldakorrek dira egunen arabera. Kudeaketa arrunteko gaiez arduratzen direla da amankomunean dutena; hala nola, epaile eta idazkarien ordezkapena hornitzea bertan titular bat ezarri artean (baja, lekualdaketa eta abar direla eta), epaitegietako zerbitzu amankomun anitzen kontrola (jakinarazpenak, gaien banaketa, konbikzio piezen gordailua -hau da, interbenitutako objektuak- eta abar). Gainera, arraroa izango da bisitaren bat hartu edota bileraren batera joan behar ez den eguna.

Hilean behin, eskumen bakoitzeko (zibila, penala, laborala, eta abar) Epaileen Batzarra zuzentzen du. Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoko bileretara ere joan behar du. Eta abar, eta abar.

**2.**  
Kataluniako Justizi Administrazioan katalanak duen egitatezko egoerari gagozkiola, zenbatekoa da katalanez izapidatzen diren prozeduren kopurua, gazteleraz egiten direnekin alboratuz? Zeure esperientzian oinarrituz, ba al da arlo edota gune zehatzik non katalana ohi baino gehiago erabiltzen den?

Ez dago inolako estatistikarik Bartzelonako epaitegietan katalanak duen erabilerari buruz,

baina argi dago hizkuntza autonomikoaren erabilera oso eskasa dela, idatziz batez ere. Oso demanda eta kereila gutxi iristen zaizkigu katalanez, eta ondorengo izapidetzak are urriagoak dira hizkuntza horretan. Ahozkoan, egoera zertxobait hobea da, baina sarritan adierazpenak edo agerraldiak katalanez egin eta gazteleraz dokumentatu ohi dira, ekintza dokumentatzen duten funtzionarioaren gaikuntza dela eta. Alderantzizkoa, ordea, ez da sekula gertatzen, gaztelerazko ekintza bat katalanez dokumentatzea, alegia. Ez dut uste arlo zehatzik dagoenik non katalanaren erabilera besteetan baino handiagoa den, kontentzioso-administratiboen eskumenean izan ezik, non espediente administratiboak katalanez egon ohi diren. Halere, ez dago eskumen horretako epaitegirik Dekanotzaren eskuduntzen eremuan; ez behintzat kontentzioso arloko epaitegirik sortzen ez den heinean.

### 3.

Ikuspegi soziolinguistiko batetik, Justizi Administrazioek, hizkuntza propioa duten Autonomi Erkidegoetan gaztelerak duen hegemoniaren azken gotorlekua dirudite (Estatuko Administrazioaren bulegoekin batera). Zer dela eta Justizi Administrazioaren inertzia, kanpo nahiz barne jardueran elebitasuna bermatzeko neurriak hartzeko orduan?

Elebitasuna garestia da beti, etengabe prestatzeko ahalegin garrantzitsuak egin behar baitira. Ahalegin hori ez da egin, eta gehienbat gazteleraz jaso den prestakuntza juridikoaren inertziak jarraitu du gailentzen. Kataluniaren kasuan kontuan hartu behar da Estatutik Autonomi Erkidegora egindako bitarteko material eta pertsonalen lekualdaketa egin berria dela, eta orain aukera gehiago dagoela beharrezkoa den inbertsio hori egiteko.

### 4.

Auzitegi Konstituzionalak ukatu egin du (1986an bertan eta orduz geroztik sarri-askotan) Autonomi Erkidego bateko hizkuntza koofizialaren ezagutza galda daitekeenik; majistratu, epaile nahiz idazkari lanpostuen horniketarako meritugisa kontuan hartzerik ere ez dago. Bayo jauna, zein da epaile, majistratu eta idazkari lanpostuetarako horniketan hizkuntza koofizialaren domeinuak izan beharko lukeen lekua?

Epaile, majistratu eta idazkari lanpostuen horniketan hizkuntza koofizialaren balorazioa, luze bezain zabal

eztabaidaturiko gaia da, baina ezin da -zenbait sektorek egin bezala- balorazioaren jatorria eztabaidatu. Botere Judizialaren Lege Organikoan hala dago ezarria, eta Estatutu euskaldun nahiz galziarraren kasuan, konstituzionaltasun blokearen galdakizun bat da. Premisa honetan oinarrituz, balorazioak kontuan hartu behar ditu bai proportzionaltasun irizpidea (orain arte lanpostu gehienetan bakarra zen aintzinasun irizpidearekiko), baita lanpostu zehatzerako egokitasuna ere. Azken honek ikuspegi bi ditu: lanpostu motari dagokiona bata; lekutze geografikoari buruzkoa bestea. Lehenengoari dagokionez, egokitasunak kontuan hartu behar du, adibidez, eskumen kontentzioso-administratiboan hizkuntzaren erabilerari buruz esandakoa. Bigarren ikuspegia ez da hain esanguratsua Katalunian, baina bai Euskal Herrian.

### 5.

Bada denbora gure lurraldean itzulpenek prozeduran zehar ematen duten bermeari buruz eztabaidatzen dela. Bilboko Entzutegiko 1. Sekzioak berriki emandako epai batean esaten denez (ikus ELERIA 1. 51-54 orr.), Botere Judizialaren Lege Organikoaren interpretazio zehatz bat eginez, euskara ezagutzen ez duen (eta ezagutu beharrik ez duen) aldearengan ematen da indefentsioa; horregatik interpretazioaren beharra. Zer irizten duzu honi buruz?

Nire ustez, koofizial diren hizkuntzen arteko itzulpena edo interpretazioa ez dago indefentsioarekin lotuta; hau da, ez dela berau emango profesionalak eginez gero. Lotura, inmediazio judizialaren eta bi hizkuntzetako edozeinen erabilera eskubidearen galdakizunarekin egin behar da. Horra hor Justizi Administrazioan parte hartzen duten guztiek gaitasuna ele bietan izatea bultzatu beharrezko zergatia, pasiboa bederen; bi hizkuntzak ulertzeko gai izatea, alegia.

### 6.

Hau dela eta, euskara, zenbait kasutan, prozedurak luzatzeko erabili izan da gure lurraldean itzulpenen sistema erabiliz...

Itzulpenak ezin du prozedura luzatzeko bitarteko bat izan; gaztelera galdatzen duenak bezala, beste hizkuntz ofiziala galdatzen duenak ere erabil dezake zentzu negatibo horretan. Kontuan eduki behar dira elebitasunerako beharrezko diren bitartekoei buruz esandakoa nahiz eskubidearen abusuari buruzko doktrina.

## 7.

Ekimen autonomikoen artean ba al da inolako koordinaziorik Justizi Administrazioan hizkuntza propioaren erabilera normalizatzeari dagokionez?

Nik behintzat ez dut Administrazio autonomikoen arteko koordinazio formalaren berri hizkuntz normalizazioari dagokionez, baina ziur nago euren artean harremanetan daudela. Zehatz-mehatz esateko, ni izan naizen jardunaldi guztietan beti izan da erkidego elebidunetako ordezkariak.

## 8.

Nolakoa izango da Katalanaren Legeak Kataluniako Justizi Administrazioan izango duen eragina?

Justizi Administrazioaren arloan, lege berriak ez du araudiaren benetako aldaketarik suposatuko. Sor dezakeen eragin bakarra, legeak adierazten duen bultzadaren borondatek etor daiteke.

## 9.

Argitaratu berri den inkesta baten arabera, hiritarrak ez daude gustora Justizi Administrazioaren funtzionamenduari. Zeintzuk dira ezerosotasun horren zioak? Zer aldatu beharko litzateke?

Justizi Administrazioaren funtzionamenduari pozik ez egoteak arrazoi konplexu eta ugari ditu atzean. Gauzak izugarri laburtuz, lau ziotan oinarritzen dela esango nuke: hiritar ertainaren kultura juridikoaren gabezia, Justiziaren moteltasunean, zerbitzu publiko izatearen bokazio eskasean eta distorsio mediatikoan. Kausa bakoitzak bere konponbideak ditu, noski. Hiritarrak, Zuzenbidearen munduari buruzko funtsezko elementu batzu jaso beharko litzateke bere eskola urteetan; oinarrizko ikasketetan nahiz ertainetan inolako arretarik jartzen ez zaion ikasgai bakarra da eta (Konstituzioa historialariek irakasten dute). Justiziaren moteltasuna, prozeduren egokitasun eza eta baliabideen gabeziari zor zaie, orden horretan. Justizia zerbitzu publikoa denaren ideia bultzatu beharra dago, Estatuko botere batek egikaritu izanik, hori bai. Botere Judiziala kutsu politikoa duten gaietan sartzean gertatu da distorsio mediatikoa, batez ere erantzunkizun politikoak judizialei baldintzatuta gelditu direnean: lehenengoak bigarrenetatik at onartu behar dira.

## 10.

Noraino da transferigarri Justizi Administrazioa?

Estatu federaletan ez bezala, autonomien estatuan Botere Judiziala zentralizatua da, eta bertako muina ez da transferigarri (epaile eta magistratuak, eta Ministeritza Fiskala). Baina hori ez da oztopo Botere Judizialeko gobernu organu estatalak deszentralizatu ahal izateko.

## 11.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu euskara hutsean egindako aldizkari juridiko bati?

Zaila egiten zait euskarazko aldizkari juridiko baten etorkizuna igartzea. Edonola ere, arrakasta handia opa diot, bere existentziak bultzada garrantzitsua ematen baitio euskara arlo juridikoetan indartzeari.

Elkarrizketa: Itziar Alkorta  
Itzultzaile: Koro Garmendia